El presente Reglamento entrará en vigor, adquiriendo vigencia y eficacia, tras de su aprobación por la Asamblea General de la **Federación Deportiva** y posterior aprobación de la Dirección de Actividad Física y Deportes del Gobierno Vasco e inscripción registral.



SEXU-JAZARPEN ETA -ABUSUAK ETA SEXUAN OINARRITUTAKO JAZARPENA PREBENITZEKO ETA ZEHATZEKO ERREGELAMENDUA

I. TITULUA **XEDAPEN OROKORRAK**

LEHENENGO KAPITULUA **Alderdi orokorrak**

1. artikulua – Xedea

Erregelamendu honen xedea da kiroleko sexu-jazarpena eta -abusua eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta zehatzeko esparru espezifiko bat ezartzea, **kirol-federazioari** adskribatuta, afiliatuta edo lotuta daudenen artean.

Erregelamendu hau diziiplina-araudi berezitzat hartuko da kirol-diziplinako erregelamenduaren edo **kirol-federazioaren** beste xedapen batzuen esparruan, zeinak, jazarpen- eta abusu-egintzei dagokienez, araudi orokortzat joko baitira.

2. artikulua – Definizioak

Araudi honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, definizio hauek finkatu dira:

- a) Emakumeen aurkako indarkeria: sexuagatiko edozein ekintza bortitz, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke; horien artean sartzen dira emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan.
- b) Jazarpn sexista: nahi gabeko edozein portaera ahozko, ez-ahozko edo fisiko, sexua dela-eta pertsona baten aurka zuzendua, eta xede edo ondorio duena pertsona horren duintasunari erasotzea, edo kikilduta, erasotuta, makurrarazita, irainduta edo laidoztatuta sentitzeko moduko giroa sortzea.
- c) Sexu-jazarpna: sexu-izaerako jazarpn sexista.
- d) Sexu-abusua: pertsona edo talde batenganako botere- eta konfiantza-abusuzko jokabidea —hitzezkoa, hitzik gabekoa edo fisikoa—, sexu-konnotazioak dituen, berekin dakarrena nahi gabeko sexu-jarduera edo, adingabeen kasuan, ezin baimenduzkoa.
- e) Grooming-a: biktima prestatzea, hurbiltzea edo hautatzea eta atzematea helburu duen portaera, ondoren jazarpneco edo abusuko ekintzak gauzatzeko asmoz.
- f) Hasiberrikeria sexualak edo sexistak: entitate edo toki jakin batzuetako ohiturazko jokabideak, kide berriak behartzeko inimizazio-ekintza sinbolokoak egitera; kasu askotan, taldekideek egiten dituzten ekintza umiliagarriak eta iraingarriak eta konnotazio sexual argikoak izaten dira, talde berean berrienek baino denbora gehiago eramateak ematen



dien aginpideak babestuta.

- g) Biktima: jazarpen- edo abusu-ekintza bat eta haren ondorio negatiboak jasaten dituen pertsona.
- h) Lekukoak: federazioaren edo kirol-jardueraren eremuan sexu-indarkeria, -jazarpen edo -abusu egoeren berri duten pertsonak.

Hemen aipatzen diren definizioetan, eremu fisikoan zein birtualean egindako portaerak sartzen dira.

3. artikulua – Betebeharrak.

Erregelamendu honetan aurreikusitakoaren esparruan, betebeharrak ezartzen dira jazarpen- eta abusu-ekintzak prebenitzeko eta zehatzeko:

- a) **Kirol-federazioaren** beraren eta hari atxikitako kirol-erakundearen betebeharrak, bereziki kirol-klub edo -elkarteenak:
 - 1. Erregelamendu honetan aurreikusitakoaren ondorioz, jazarpen- eta abusu-ekintzak prebenitzeko eta zehatzeko beharrezkoak diren neurriak edo protokoloak ezartzea.
 - 2. Behar bezalako jarduketak egitea, bai eta ikerketa serio, inpartzial eta eraginkor bat ere, jazarpen- eta abusu-kasu posible baten zantzuak edo ebidentziak dauden unetik beretik.
 - 3. Salatzea agintari eskudunen aurrean jazarpen- edo abusutzat har daitezkeen egitateak edo egoerak.
 - 4. Arrazoizko epe batean, jazarpen- eta abusu-ekintzen egileek entitatearen barruan inongo lanik egiten jarraitzea eragozteko behar diren neurriak hartzea.
 - 5. Jazarpenaren eta abusuen prebentzioari buruzko beharrezko prestakuntza ematea haren egitura osatzen duten pertsona guztiei.
 - 6. Jazarpen- eta abusu-ekintzen biktima izan daitezkeenei behar duten babesa eta laguntza ematea.
 - 7. Aurrekoekin edo erregelamendu honen edukiarekin zuzenean edo zeharka lotuta dagoen beste edozein, jazarpen- edo abusu-ekintzak prebenitzea edo zehatzea helburu duena.
- b) **Kirol Federazioari** adskribatutako estamentu edo taldeetako pertsona fisikoaren betebeharrak (kirolariak, teknikariak edo entrenatzaileak, epaileak, arbitroak, zuzendaritzako langileak, ordezkariak eta abar):



1. Jazarpen- eta abusu-ekintzak prebenitzeari eta zehatzeari dagokionez, kide diren kirol-erakundeek dituzten neurriak edo protokoloak betetzea.
2. Salatzea agintari eskudunen aurrean jazarpentzat edo abusutzat har daitezkeen egitateak edo egoerak.
3. Jazarpen- eta abusu-ekintzak jasaten dituzketen pertsoneri laguntza ematea.
4. Jokabide edo jarduketa hauetarik bat ere ez egitea:
 - Egoera orokorrak:
 - i. Bizitza pribatuari buruzko galdera deserosoak egitea.
 - ii. Bizitza sexualari buruzko galderak egitea.
 - iii. Bizitza pribatuaren kontuetan sartzea.
 - iv. Telefono-deiak etengabe eta arrazoirik gabe egitea.
 - v. Bizitza pribatua justifikaziorik gabe kontrolatzea.
 - vi. Biktima bilatzera joatea kirol-jarduerarik egiten ez den leku jendetsuetara.
 - vii. Itxuraz ustekabeak eta benetan beharrezkoak ez diren topo egiteak behin eta berriz sortzea.
 - viii. Baimena eskatu gabe aldageletan sartzea.
 - ix. Aldageletan egotea dutzatzen edo janzten diren bitartean.
 - x. Aldageletan, komunetan eta abarretan ezkutuan begira egotea.
 - xi. Alkoholaren kontsumoa sustatzea bidaietan, garraiobideetan, lehiaketen ondoren, festetan edo ospakizunetan.
 - xii. Droga toxikoen, estupefazianteen eta substantzia psicotropikoen legez kanpoko kontsumoa sustatzea edo bultzatzea.
 - xiii. Harreman dualak: jantziak partekatzea, dutzatzea eta abar.
 - xiv. Bidaietan gela partekatzea, berariaz debekatuta edo mugatuta dagoenean.
 - xv. Banakako entrenamendu-saiotetara deitzea.
 - xvi. Norberaren etxera gonbidatzea, helburu objektiboki legitimorik izan gabe.
 - xvii. Sexu-izaerako proposamen, gonbidapen eta kitzikapen esplizituak.
 - xviii. Kirol-abantailak eskaintzea sexu-zerbitzuen truke.
 - Hitzeko komunikazioa:
 - i. Iruzkin sexistak, mespretxuzkoak edo desagokiak: emakumeak oro har zalantzan jartzen edo barregarri uzten dituztenak, gorputzaren alderdi edo ezaugarriren bat dela, jantzeko eta apaintzeko modua dela...
 - ii. Hitz zantarrak, biraoak eta sexu-adierazpideak.
 - iii. Emakumeak barregarri uzten dituzten txantxak, isekak edo txistekak.
 - iv. Esapide, txantxa eta iritzi homofoboak, orokorrak nahiz sexu-orientazioari buruzkoak.
 - v. Esapide oldarkorrak, ondoeza eragiten dutenak eta aurkako giroa sortzen dutenak.
 - vi. Esapide oldarkorrak, beldurra edo ikara eragiten dutenak.



- vii. Sexu-konnotazioak dituzten zirrikadak edo irainak.
- viii. Agindu eta zuzenketa taktiko-tekniko zakarrak, hitz zantar eta iraineekin egindakoak.
- ix. Sexu-proposamenen bidez eragindako hitzezko larderia.

- Hitzik gabeko komunikazioa:

- i. Begirada likitsak edo etengabeak.
- ii. Ustez miresmena edo desioa erakutsi nahi duten txistualdiak.
- iii. Aurpegiko edo gorputzeko adierazpideak, behatzaileari ezinegona edo deserosotasuna eragiten diotenak edo eragin diezaioketenak.
- iv. Irudi pornografikoak edo eduki sexuala duten objektuak erakustea.
- v. Bideo edo film erotiko-pornografikoak bistaratzea.
- vi. Teknologia berrien erabilera desegokia: mezu deserosoak bat-bateko komunikazioaren bidez; sare sozialen bidezko nahi gabeko komunikazioa edo jarraipena, eduki sexuala duten mezu elektronikoak.

vii. Dei galdu etengabeak.

- kontaktu fisikoa:

- i. Aurpegiko edo gorputzeko adierazpideak, behatzaileari ezinegona edo deserosotasuna eragiten diotenak edo eragin diezaioketenak.
- ii. Gorputz-kontaktu gehiegizkoa eta desegokia, besarkadak, ferekak, etab. Gorputzaren zati jakin batzuk ukitzea: ipurmasailak, bularrak, sexu-organoak...
- iii. Atximurkadak eta masailekoak.
- iv. Besarkada baten aitzakiaz, musu ematen ahalegintzea.
- v. Nahi ala ez musu ematea.
- vi. Baimenik gabeko sexu-ekintzak.
- vii. 16 urtetik beherakoekin izandako sexu-ekintzak eta 16 urtetik gorakoekin eta 18 urtetik beherakoekin izandako sexu-ekintzak, baimenik gabe eta halakoak egiteko heldutasun nahikorik ez duten pertsonekin.
- viii. Bortxatzeko ahalegina.
- ix. Bortxaketa.

BIGARREN KAPITULUA

Aplikazio-eremua

4. artikulua. Aplikazio-eremu materiala

Kirol-federazioaren jardueretan parte hartzen duten pertsona fisiko edo juridikoei eragiten



dieten jardueretara hedatzen da diziplinaren eremua.

5. artikulua - Diziplina-ahala

Diziplina-ahalak bere titular legitimoen ematen die jazarpen- eta abusu-egitateak ikertzeko eta erantzuleei dagozkien zehapenak ezartzeko ahalmena.

6. artikulua - Aplikazio-eremu subjektiboa

Kirol Federazioak diziplina-ahala egikaritzeko du bere egitura organikoa osatzen duten pertsona guztien gainean, kirolari, kirol-klub, teknikari, zuzendari eta epaileen gainean, eta, oro har, federatuta egonik, haien lurralde-eremuan eginkizunak garatzen, karguak betetzen edo jarduerak egiten dituzten pertsona edo entitate guztien gainean.

7. artikulua - Diziplina-organoa

1.- **Kirol Federazioaren Jazarpen eta Abusuko Diziplina Batzordea (JADB)** da diziplina-ahala egikaritzeko organo eskuduna. Batzorde hori berariaz sorturiko diziplina-organo espezializatua da, **Kirol Federazioaren** eta haren jardueren esparruan gerta litezkeen jazarpen- eta abusu-egoerez edo -ekintzez arduratuko dena. **Kirol Federazioko Jazarpen eta Abusuko Diziplina Batzordeak (JADB)** federazio-istantzia bakar batean ezagutzen ditu jazarpen- eta abusu-kasu edo -egoerei buruzko gaiak, erregelamendu honetan aurreikusitako baldintzetan.

2.- Joko- edo lehiaketa-arauei eta kirol-arau orokorreari buruzko diziplinazko kiroleko arau-haustea aztertzeko eta ebazteko eskumena duten federazioaren diziplina-organoek ez dute esku hartuko jazarpen- eta abusu-egintzat jotzen diren kasu edo auzietan. Jazarpen- eta abusu-ekintza posible batekin zerikusia duketen egitateen edo jardueren berri dutenean, erregelamendu honetan berariaz aurreikusitako **Kirol Federazioaren Jazarpen eta Abusuko Diziplina Batzordera** bideratuko edo bidaliko dira.

8. artikulua – Bateragarritasun juridikionala

1. Diziplina-araubidea independentea da erantzukizun zibil edo penaletik, bai eta lan-harremanen ondoriozko araubidetik ere, zeina kasu bakoitzean dagozkion legeriaren arabera arautuko baita.
2. Diziplina-organoak, ofizios edo espedientearen instruktoreak eskatuta, delitu penal izan daitezkeen arau-hausteen berri eman beharko dio fiskaltzari. Kasu horretan, prozedura etetea erabakiko du, inguruabarren arabera, harik eta ebazpen judiziala eman arte. Prozedura etetea erabakitzen bada, kautela-neurriak hartu ahal izango dira, interesdunari entzun ondoren, hala badagokio, alderdi guztiei jakinarazitako probidentziaren bidez.
3. Erregelamendu honetan aurreikusitakoaz bestelako zehapenak ezartzeak ez du eragotziko, hala badagokio eta bere oinarri desberdina kontuan hartuta, kirol-arloko erantzukizunak argitzea, eta ezin izango da izaera bereko zehapenik ezarri. Egitate batek berak erantzukizun-maila desberdinak eragin baditzake, diziplina-organoak bere



esku dituen aurrekarien berri emango dio dagokion agintaritzari, diziiplina-prozedura izapidetzeaz aparte. Diziiplina-organoak beste erantzukizun bat edo batzuk soilik eragin ditzaketen egitateen berri duenean, eskura dituen aurrekariak helaraziko dizkio, besterik gabe, agintaritza eskudunari.

9. artikulua – Eskumen-gatazka

1. Kirol-erakundeko diziiplina-organoen artean gaiak izapidetzeari buruz edo ebazteari buruz sortzen diren gatazka positiboak edo negatiboak Kirol Justiziako Euskal Batzordeak ebatziko ditu, baldin eta Euskadiko kirol-federazioen edo lurralde-federazioen artean sortzen badira.
2. Diziiplina-araudi orokorrean aurreikusitako joko- edo lehiaketa-arauei eta kirol-arau orokorrei buruzko diziplinazko arau-haustekak edo araudi honetan aurreikusitako indarkeriazko, jazarpeneko eta abusuko ekintzekin lotutako arau-haustekak izan daitezkeen gaiak organo hauen hauen ardurapean jarri beharko dira: (i) federazioko diziiplina-organo orokorrak, baldin eta lehiaketa federatuen harira epaileek, arbitroek edo kirol-agintariak egindako akta edo txostenetan jasotako egoerak edo gaiak badira; (ii) ***Kirol Federazioaren Jazarpen eta Abusuko Diziiplina Batzordea***, gainerako kasuetan.

HIRUGARREN KAPITULUA **Printzipio informatzaileak**

10. artikulua – Diziiplina-printzipioak

1. Jazarpen- eta abusu-ekintzen ondoriozko arau-hausteengatik erantzukizuna zehaztean, federazioko diziiplina-organoak zehapen-zuzenbidearen printzipio informatzaileak bete beharko ditu.
2. Ezin izango da zehapenik ezarri gertatu aurretik arau-hauste gisa tipifikatuta ez dauden ekintza edo ez-egiteengatik; era berean, ezin izango da zehapenik ezarri egin aurretik inongo arautan jasota ez dagoen zehapen batengatik.
3. Ezin izango da zehapen bat baino gehiago ezarri egitate beragatik, erregelamendu honek osagarritzat ezartzen dituenak izan ezik, eta hala zehazten den kasuetan bakarrik.
4. Diziiplina-xedapenek atzeraeragina dute arau-hausleari mesede egiten dioten heinean, nahiz eta argitaratzen direnean ebazpen irmoa eman.
5. Diziiplina-zehapenak espediente baten bidez eta ebazpen funtsatu batean oinarrituta baino ezin izango dira ezarri; beti entzun beharko zaie interesdunei, eta interesdun horiei izendatzen duten pertsonaren laguntza bermatuko zaie.



11. artikulua – Berehalako betearazpen-printzipioa eta beste kirol-federazio batzuek ezarritako zehapenak aitortzeko printzipioa

1. Dagokion diziplina-espediterearen bidez ezarritako zehapenak berehala betearaztekoak izango dira, eta haien aurka jartzen diren erreklamazio eta errekurtsioek ez dute etengo edo geldiaraziko zehapenen betearazpena. Horrek guztiak ez du eragotziko instantzietako diziplina-organoek, dagozkien ahalmenak erabiliz eta alderdietako baten eskariz, gerora ematen den ebazpena segurtatzeko egoki iritzitako kautelazko neurriak hartzea.
2. **Kirol Federazioaren** esparruan eta haren jardueren eremuan, aitorten osoa jasoko dute beste kirol-federazio batzuek edozein pertsonari edo entitateari jazarpen eta abusuen ondoriozko arau-hausteak egiteagatik ezartzen dizkieten —eta betearaztekoak diren, nahiz eta artean irrimoak ez izan— zehapenen ondorioak. Beste kirol-federazio batzuek ezarritako zehapenen ondorioak aitortzearen ondorioz —erregelamendu honetan aurreikusi bezala—, edozein kirol-federaziok ezarritako zehapenak betetzeko aldiari, zehatutako pertsonak edo entitateak ezin izango du **Kirol Federazioaren** lehiaketa edo jardueretan parte hartu edo esku hartu.
3. Erregelamenduaren artikulua honen aurreko apartatua aurreikusitakoa betetzen dela bermatzeko, komunikazio-mekanismo bat ezarriko da, informazioa emango duena lehiaketa federatu ofizialetan parte hartzen ari diren edo parte hartzeko asmoa duten pertsonari edo entitateari ezarritako zehapenei buruz. **Kirol Federazioa** adskribatzen denean, pertsona eta entitate orok bere gain onartzen du baimena ematea jazarpeneko eta abusuko edozein arau-hauste egiteagatik zehapenen berri jakinarazteko beste entitate batzuei.

12. artikulua – Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa

1. Arau-hauste oso astunen kasuan, hamar urtera preskribatuko dute; astunen kasuan, bost urtera; eta arinen kasuan, urtebetera (arau-haustea egin eta hurrengo egunean hasiko da preskripzio-epea). Jarduera jarraituen kasuan, preskripzio-epea jokabide arau-hauslea amaitzen edo gelditzen denetik hasiko da zenbatzen.
2. Preskripzio-epea eten egingo da zehapen-prozedura hasiz gero, baina prozedura horren mende dagoen pertsona edo entitateari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik prozedura geldirik egoten bada hilabetez, berriro hasiko da zenbatzen preskripzio-epea, eta berriro etengo da, espediterea izapidetzen berriz hasten denean.
3. Zehapenek hiru urteko, urtebeteko edo hilabeteke epean preskribatuko dute, arau-hauste oso astunak, astunak edo arinak diren kontuan hartuta, eta preskripzio-epea hasiko da zenbatzen zehapena ezarri zuen ebazpenak irmotasuna hartu eta hurrengo egunetik aurrera edota betetze hori (hasi bada) urratzen denetik aurrera.



13. artikulua – Zehapenen betearazpena etetea

1. Erreklamazioak edo errekursoak jartze hutsak ez du zehapenen betearazpena geldiarazten edo eteten. Hala ere, prozeduraren mende dagoen pertsonak edo entitateak eskaera funtsatua eta espresua egiten badu, **Kirol Federazioaren** diziiplina-organoak zehapenen betearazpena geldiarazi ahal izango du, arrazoiak emanez. Zehapenak geldiaraztea aukerakoa izango da beti. Nolanahi ere, errekurritutako egintzen betearazpena geldiarazi aurretik, **kirol-federazioaren** diziiplina-organoak balioetsi beharko du zehapena betetzeak kalte konpongaitzak edo konponezinak eragin ditzakeen.

LAUGARREN KAPITULUA

Erantzukizuna

14. artikulua – Inguruabar aringarriak

Kirol-jardueran gertatzen diren sexu-jazarpen eta -abusuei eta sexuan oinarritutako jazarpenei dagokienez, ez da aurreikusten erantzukizuna arindu dezakeen inguruabarririk egon daitekeenik, hargatik eragotzi gabe diziiplina-organo epai-emaileak kasu bakoitzean zehapena zehaztu eta mailakatzeko duen eskumena, kasuan kasuko inguruabarren arabera.

15. artikulua – Inguruabar astungarriak

Erantzukizunaren inguruabar astungarriak dira:

- a) Berrerortzea. Berrerortzea dago baldin eta arau-hausleak aurreko bost urteetan zehapenik jaso badu, ebazpen irmo bidez, larritasun-maila bereko edo handiagoko edozein arau-hausterengatik edo larritasun txikiagoko bi arau-hausterengatik edo gehiagorengatik. Epea zenbatzeko, arau-haustea egiten diren uneak hartuko dira kontuan.
- b) Agintekeria edo arau-hauslearen hierarkia-posizioa abantailaz erabiltzea biktimaren gaineratik.
- c) Biktima adingabea izatea.
- d) Maltzurkeria erabiltzea, edo arau-hauslearen kaltegabatasuna zuzenean ziurtatzeko bitartekoak, moduak edo formak erabiltzea.

16. artikulua – Erantzukizuna aldatzen duten inguruabarrak balioestea

1. Inguruabar astungarriak atzematen badira, zehapenaren mailaketa arrazoizko batera doitu beharko da, hutsegitea oso larria, larria edo arina izan den kontuan hartuta.
2. Diziiplina-organoak, aplikatu beharreko zehapena zehazteko, faltan gertatzen diren gainerako inguruabarrak balioetsi ahal izango ditu, hala nola arau-haustearen ondorioak, egitateen izaera edo erruztatuarengan kirol-arloko erantzukizun bereziak egotea.



17. artikulua – Erantzukizuna azkentzea

1. Hauek dira erantzukizuna azkentzeko arrazoiak:
 - a) Arau-hauslea hiltzea errorortzea.
 - b) Entitatea desgitea, pertsona juridikoei egindako arau-hausteei dagokienez.
 - c) Zehapenak edo arau-haustek preskribatzea.
 - d) **Kirol Federazioaren** kide izateari uztea; kasu horretan, eten egingo da kasuan kasuko arau-hausteren preskripzio-epea. Hala ere, baldin diziplina-prozedura martxan egonda diziplina-araubidearen eraginpeko edozein subjektuk uzten badio **Kirol Federazioko** kide izateari, prozedurak aurrera jarraituko du ebazpena eman arte.
2. Gerora Kirol Federazioko afiliazioa edo kide izatea berreskuratzen bada, berriz ekingo zaio burutu gabe dauden zehapenak betetzeari.

BOSGARREN KAPITULUA **Funtzionamendurako araubidea**

18. artikulua – Batzordekideak izendatzea. Titulazioa

1. **JADB** kide anitzeko organoa izango da, eta kide-kopuru bakoitia izango du. Batzordekideetako bat lehendakari izendatuko da. JADBren saioretan aztertu beharreko gaiak buruzko ezagutza duten pertsonak bertaratzea edo parte hartzea eskatu ahal izango du batzordeko lehendakariak, baldin eta adituen txosten edo iritzi espezializaturik behar baldin bada; pertsona horiek hitza izango dute, baina botorik ez. JADBk kide izan gabe administrazioko edo idazkaritzako lanak egiten dituen pertsona bat eduki ahal izango du.
2. JADB osatzen duten kide guztiek Zuzenbideko lizentziatura edo gradua izan beharko dute, eta haietako batek, gutxienez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren edo sexu-indarkeriaren arloko prestakuntza eta esperientzia egiaztatua izan beharko du. JADB osatzen duten kideak hautatzea eta izendatzea **Euskal Federazioaren** Lehendakariari dagokio, eta berariaz adierazi beharko du batzordeburua nor izango den.
3. Aurreko apartatuan adierazitakoa gorabehera, **Euskal Federazioak** lankidetzahitzarmen bat sinatu ahal izango du EKFBrekin, entitate horrek eman diezaien arlo horretako zerbitzua bere bazkideei. Kasu horretan, **JADBrekin** osaera eta harekin lotutako gainerako gaiak EKFBk berak ezarriko ditu.

19. artikulua – Funtzionamendurako araubidea

JADBk independentzia funtzionalarekin jardungo du, eta ebazpenak hartzeko ez du beste inoren esku-sartzerik onartuko.



SEIGARREN KAPITULUA
Diziplina-prozedura

1. ATALA
Xedapen orokorrak

20. artikulua – Gertaerak edo salaketak ezagutzea. Aurretiatzko eginbideak

Jazarpeneko eta abusuko gertakarien edo salaketen berri dakienean, JADBk informazio erreserbatua instruitzea erabaki ahal izango du, espedientea hastea edo, hala badagokio, jarduketak artxibatzea erabakitzen duen probidentzia eman aurretik.

21. artikulua. Ebatzi beharra

JADBk zapidetzeko onartu edo berariaz baztertu beharko ditu aurkezten zaizkion eskaerak edo erreklamazioak, hamabost eguneko epean gehienez ere. Epe hori igarotakoan, eskaera-erreklamazioak ezetsitatzeko dira.

22. artikulua. Interesdunaren kontzeptua

1. Arau-haustea eragin duten ekintzen erantzukizuna haien erantzule diren pertsonen egotziko zaie, baita arau-haustea baldin badatza arauak ez betetze soilean ere.
2. Hauek dira prozeduran interesdun diren pertsonak:
 - a) Prozedurari hasiera eman diotenak, eskubide edo interes legitimo indibidual edo kolektiboen titular modura.
 - b) Prozedura haiek hasi ez badute ere, hartan hartuko den erabakiak uki ditzakeen eskubideak dituztenak.
 - c) Ebazpenak uki ditzakeen interes legitimo indibidual nahiz kolektiboak dituztenak, behin betiko ebazpena eman baino lehen aurkezten badira prozeduran.

23. artikulua – Entzunaldia

Prozedura guztietan nahitaezkoa izango da pertsona edo entitate interesdunei entzuteko izapidea ematea, eta hamar egun balioduneko epea emango zaie, gehienez ere, alegazioak aurkezteko edo ordenamendu juridikoak onartzen dituen defentsa-bitartekoak erabiltzeko.

24. artikulua – Behin-behineko neurriak

1. Prozedura hasita eta proportzionaltasun-printzipioari atxikita, hura abiarazteko eskumena duen organoak egokitzen jotzen dituen behin-behineko neurriak hartu ahal izango ditu ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzeko. Behin-behineko neurriak prozeduraren edozein unetan hartu ahal izango dira, bai ofizioz, bai instruktorearen



mozio arrazoituaren bidez. Hartzen den erabakia behar bezala arrazoitu beharko da.

2. Ezin izango da hartu kalte konponezinak eragin ditzakeen behin-behineko neurririk.

25. artikulua – Espedienteak metatzea

1. Diziplina-organoak, ofizioz edo interesdunak edo entitateak eskatuta, espedienteak metatzea erabaki ahal izango du, baldin eta nahikoa nortasun- eta analogia-izaera duten inguruabarrak badaude, subjektiboak edo objektiboak, izapidetze eta ebazpen bakarra gomendagarri egiten dutenak.
2. Metatzeko erabakia probidentzia bidez edo ematen den ebazpenaren aurrekari gisa jasota jakinaraziko zaie prozeduran interesa duten pertsona edo entitateei.

BIGARREN ATALA **Prozedura**

26. artikulua – Prozedura. Xedea

Prozedura legeria orokorreko printzipio eta arauen eta erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera izapidetuko da.

27. artikulua – Hasiera

1. Diziplina-espedienteari hasiera ematen dion probidentziak instruktorearen izendapena jasoko du. Instruktoarak Zuzenbideko lizentziatura edo gradu titulua izan beharko du, eta espedientea izapidetzeaz arduratuko da.
2. Beharrezkotzat jotzen bada, probidentzian jasoko da, halaber, pertsona bat idazkari izendatuko dela, espedientea izapidetzen den bitartean laguntzeko.

28. artikulua – Instruktoea eta idazkaria

1. Instruktoeari eta, hala badagokio, idazkariari, Estatuko legerian administrazio-prozedura erkiderako aurreikusitako abstentzio- eta errekusazio-arrazoiak aplikatuko zaizkie.
2. Interesdunek hiru egun balioduneko epean egikaritu ahal izango dute errekusazio-eskubidea, izendapen-probidentziaren berri izan eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, hura eman zuen organoaren aurrean, eta hark beste hiru egun balioduneko epean ebatzi beharko du.
3. Hartzen diren erabakien aurka ezin izango da errekurtsorik jarri, hargatik eragotzi gabe prozedurari amaiera ematen dion egintzaren aurka administrazio-errekurtsoa edo



errekurtso juridikzionala —kasuan-kasuan dagokiona— aurkezterakoan errekusazioa alegatzeko aukera.

29. artikulua – Instrukzioa

Instruktoreak egitateak zehazteko eta egiaztatzeke egokiak diren eginbideak bidera daitezela aginduko du, bai eta zehapena jaso dezaketen arau-hausteak finkatzekoak behar direnak ere.

30. artikulua – Frogak

1. Prozedurarako garrantzitsuak diren gertakariak edozein frogabideren bidez egiaztatu ahal izango dira, behin instruktoreak froga-fasea irekitzea erabaki ondoren. Fase horrek ez du hamabost egun baliodun baino gehiago eta bost egun baino gutxiago iraungo, eta interesdunei behar besteko aurrerapenarekin jakinaraziko zaie non eta noiz egingo den.
2. Interesdunek froga-fasea hasi aurreko edozein unetan proposatu ahal izango dute edozein froga egitea, edo zuzenean aurkeztu ahal izango dituzte espedientea behar bezala ebazteko interesgarriak direnak. Interesdunek proposatutako froga berariaz edo isilbidez ukatzearen aurka, pertsona horiek erreklamazioa aurkeztu ahal izango diote, hiru egun balioduneko epean, espedientea ebazteko eskumena duen organoari, eta organo horrek beste hiru eguneko epean eman beharko du ebazpena. Erreklamazioa jartzeak ez du inoiz ere espedientearen izapidetzea etengo.

31. artikulua – Kargu-orria eta ebazpen-proposamena.

1. Egindako jarduketak ikusita, eta prozedura hasi eta gehienez ere hilabeteko epean, instruktoreak largespena proposatuko du edo kargu-orria egingo du; bertan, egotzitako egitateak, inguruabarrak, ustezko arau-hausteak eta aplikatu daitezkeen zehapenak adieraziko dira. Instruktoreak, behar bezala justifikatutako arrazoiak direla eta, epe hori luzatzeko eskatu ahal izango dio ebazteko eskumena duen organoari.
2. Kargu-orrian, instruktoreak ebazpen-proposamen bat aurkeztuko du, eta interesdunei jakinaraziko zaie, hamar egun balioduneko epean beren eskubideak edo interesak defendatzeko egokitzat jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten. Kargu-orrian, halaber, behin-behineko neurriak mantentzea edo kentzea proposatuko du instruktoreak, halako neurriak jarri bada.
3. Aurreko apartatuan adierazitako epea igarota, instruktoreak, izapide gehiagorik gabe, ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio espedientea, zeinari, hala badagokio, aurkeztutako alegazioak gehituko baitzaizkio.



3. ATALA **Ebazpenak**

32. artikulua – Ebazpena

Organo eskudunaren ebazpenak amaiera ematen dio kirol-diziplinako espedienteari, eta gehienez ere hamar egun balioduneko epean eman beharko da, instruktoreak espedientea aurkeztu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

33. artikulua – Ebazpenaren edukia

Ebazpenean, behar bezala adieraziko dira: zehatzen den egitatearen tipifikazioa, zer arau urratzen duen eta zer errekurtsio jar daitekeen, eta zer organori zuzendu behar zaion eta zer epe dagoen horretarako.

34. artikulua – Jakinarazpenak

1. Probidentzia edo ebazpen guztiak lehenbailehen jakinaraziko zaizkie pertsonatzen diren interesdunei edo prozeduran aurkeztu eta interesdun legitimo direnei, gehienez ere hamar egun balioduneko epean, jakinarazpena eman den egunetik zenbatzen hasita.
2. **JADBko** idazkariak egingo ditu jakinarazpenak, eta diziplina-organoak hartutako erabakiaren testu osoa jaso beharko dute, bai eta erabaki hori hartu duten batzordekideen izenak ere. Jakinarazpenak administrazio-prozedura erkidearen legeriaren araberrako edozein bidetatik egingo dira, bide elektronikoa, informatikoa eta telematikoa barne, baldin eta bermatzen bada jakinarazpenak kautoak direla, osorik eta egoera onean daudela eta interesdunak behar bezala jasotzen dituela.
3. Zehapenak ezarriz gero, federazioari adskribatuta egoteak berekin dakar kirol-diziplinako subjektu guztiek onartzea, eta askatasunez onartzea ere, zehapenak behar bezala iragarriko direla, betiere datuak babesteko araudian xedatutakoa errespetatuz.
4. Kirolari, entrenatzaile, teknikari, ordezkari eta zuzendaritza-kideei egin beharreko jakinarazpenak unean uneko haien kirol-klubean egin ahal izango dira. Jakinarazpenak balioa izango du ondorio guztietarako.

35. artikulua – Zehapenen erregistroa

JADBko idazkaritzak zehapenen erregistro bat izango du, zehatza eta egunean-egunean eramango dena. Bertan, diziplina-espedientea hasteko erabakia eta emandako ebazpena inskribatuko dira, ezarritako zehapena adierazita, halakorik badago. Erregistroaren xedea da, besteak beste, zehapenaren betetze-mailaren zenbaketa kontrolatzea, eta arau-hausteen eta zehapenen preskripzio-eparena ere bai.



ZAZPIGARREN KAPITULUA **Errekurtsoak**

36. artikulua – Federazioaren organoek emandako ebazpenen aurkako errekurtsoak

Federazio-bidea amaitzen duten **JADBren** ebazpenen aurka errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Kirol Justiziako Euskal Batzordeari, hamabost egun balioduneko epean, gehienez ere.

37. artikulua – Epeak zenbatzeko modua

1. Errekurtsoak edo erreklamazioak aurkezteko epea ebazpena edo probidentzia jakinarazi eta hurrengo egun baliodunetik aurrera zenbatuko da, baldin eta ebazpen edo probidentzia horiek espresuak badira.
2. Espresuak ez badira, epea hamabost egun baliodunekoa izango da, eskaerak, erreklamazioak edo errekurtsoak ezetsizat jo behar diren egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

38. artikulua – Ebazpenen edukia

Jakinarazpenak ebazpenaren testu osoa jaso beharko du, eta adierazi beharko du behin betikoa den ala ez, zein erreklamazio edo errekurtso jar daitezkeen, zein organori aurkeztu behar zaizkion eta zein epetan.

39. artikulua – Datuak irispidean izateko eskubidea

Interesdunek espediente baten parte diren erregistro eta agirietara irispidea izateko eskubidea dute, datuak babesteko indarreko arauditik eratorritako betebeharrei buruzko erreserbak alde batera utzi gabe. Hala ere, hiru kasutan uka daiteke eskubide hori, modu arrazoituan: interes publikoko arrazoiak gailentzen direnean, babesteko egokiagoak diren hirugarrenen interesak daudenean, edo lege batek hala xedatzen duenean; kasu horietan, organo eskudunak ebazpen arrazoitua eman beharko du.

II. TITULUA **ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK**

LEHENENGO KAPITULUA **Arau haustek**

40. artikulua – Sailkapena

Arau-haustek oso astunak, astunak edo arinak izan daitezke, larritasun-mailaren arabera.

41. artikulua – Arau-hauste oso astunak

Hauek izango dira arau-hauste oso astunak:

- a) Sexu-xantaia: kirolariari zenbait kirol-sari edo -abantaila eskaintzea eduki sexualeko



- mesedeak egiteko prestasunaren truke, eta horri uko egiten badio errepresaliaz mehatxatzea.
- b) Inguru-jazarpen sexista: kikilduta, erasotuta edo laidoztatuta sentitzeko moduko giroa sortzea, eduki sexuala edo sexista duten adierazpenen bidez.
 - c) Jazarpen-ikerketak salatu, haien lekukotza eman, lagundu edo horietan parte hartzen duten pertsonen aurkako errepresaliak hartzea.
 - d) Errepresaliak hartzea sexu-jazarpen eta -abusuen aurka egiten duten pertsonen aurka, dela beren buruarenganako jazarpen edo abusua, dela hirugarreganakoa.
 - e) Eraso fisikoa dakarten ekintza guztiak.
 - f) Delitu diren gertakariak.

42. artikulua – Arau-hauste larriak

Hauek izango dira arau-hauste larriak:

- a) kontaktu fisiko gehiegizkoa eta desegokia: nahi gabeko gorputz-kontaktua, besarkadak, estutzeak eta gorputz-hurbiltzeak.
- b) Kirolariei ezkutuan begira egotea, leku erreserbatuetan, hala nola aldageletan eta komunetan.
- c) Zaintza muturrekoa eta etengabea dakarten jarrerak.
- d) Keinu lizunak.
- e) Adingabeak bakartzea, banakako entrenamenduaren bidez.
- f) Pertsona bati buruz eta haren errendimenduari buruz deskalifikazio publikoak behin eta berriz egitea.
- g) Kirolariaren itxura fisikoari, ideologiari edo sexu-aukerari buruzko iruzkin umiliagarri jarraituak egitea.
- h) Esapide oldarkorrak, ondoeza eragiten dutenak eta aurkako giroa sortzen dutenak.
- i) Agindu umiliagarriak ematea.
- j) Hitzeko eraso, larderia edo hertsapena.
- k) Esapide oldarkorrak, beldurra edo beldurra eragiten dutenak, eta botere-abusua adierazten dutenak.
- l) Gorputzeko alderdiren bati buruzko mespretxuzko iruzkinak.
- m) Janzteko eta apaintzeko moduari buruzko mespretxuzko iruzkinak.
- n) Esapide, txantxa eta iritzi homofoboak, orokorrak nahiz sexu-orientazioari buruzkoak.
- o) Hitzeko larderia, sexu-proposamenen bidez eraginda.
- p) Gonbidapen lizunak edo norbait estutasunean jartzekoak.
- q) Irudi pornografikoak edo eduki sexuala duten objektuak erakustea eta kirolariekin bistaratzea edo haiei bideo edo film erotiko-pornografikoak ematea, testuinguru edo egoeraren arabera larritasun berezia hautematen denean.
- r) Sexu-konnotazioak dituzten zirikadak edo irainak.
- s) Jazarpen- eta abusu-ekintzak prebenitzeko eta zigortzeko neurriak edo protokoloak ez inplementatzea, baldin eta horrelako kasuak eragozteko modukoak badira.
- t) Beharrezkoak diren ikerketa-jarduerak ez egitea, jazarpen- eta abusu-kasu posible baten zantzuak edo datuak izan direnean.
- u) Ez salatzea agintari eskudunen aurrean jazarpenentzat edo abusutzat har daitezkeen



egitateak edo egoerak.

- v) Ez hartzea beharrezkoak diren neurriak, jazarpen- eta abusu-ekintzen egileek entitatearen barruan inongo lanik egiten jarraitzea eragozteko.
- w) Ez ematea behar duten babesa eta laguntza jazarpen- eta abusu-ekintzen biktima direnei edo izan daitezkeenei.

43. artikulua – Arau-hauste arinak

Hauek izango dira arau-hauste arinak:

- a) Emakumeak oro har barregarri uzten dituzten iruzkin sexistak.
- b) Emakumeen jarduera zalantzan jartzen edo barregarri uzten duten iruzkin sexistak.
- c) Gorputzaren alderdi edo ezaugarriren bati buruzko iruzkin desagokiak.
- d) Jantzeko eta apaintzeko moduari buruzko iruzkin desagokiak.
- e) Hitz zantarrak, biraoak eta izaera sexual eta sexistako esamoldeak.
- f) Eduki sexualeko broma, iseka edo txiste desatseginak.
- g) Zuzenketa taktiko-tekniko zakarrak, hitz zantar eta irainekin egindakoak.
- h) Izaera sexualeko iruzkinak babesten edo ordezten dituzten keinu eta mugimendu lizunak.
- i) Begirada lizunak eta iraunkorrak.
- j) Sexu-konnotazioa duten txistualdiak.
- k) Irudi pornografikoak edo eduki sexuala duten objektuak erakustea eta kirolariekin bistaratzea edo haiei bideo edo film erotiko-pornografikoak ematea, testuinguru edo egoeraren arabera ez denean larritasun berezia hautematen.
- l) Emakumezko kirolariei mezu desagokiak bidaltzea.
- m) Nahi gabeko jarraipena sare sozialen bidez.
- n) Behin eta berriz dei galduak egitea.
- o) Sexu-edukia duten mezu elektronikoak bidaltzea.
- p) Aurreko artikuluko r, s, t, u, v apartatuetan aurreikusitako ekintzak edo ez-egiteak, larritasun berezirik ez dutela jotzen denean.

BIGARREN KAPITULUA **Zehapenak**

44. artikulua – Arau-hauste oso astunen zehapenak

Erregelamendu honen 41. artikuluan tipifikatutako arau-hauste oso astunak egiteagatik, zehapen hauek ezarriko dira:

- a) Isunak: 6.001 eurotik gora eta 60.000 eurotik behera.
- b) Probak edo lehiaketak egiten diren tokietara sartzeko debekua, urtebete eta bost urte bitartean.
- c) Kirol-erakundeak karguak betetzeko gaitasunik gabe uztea edo federazio-lizentzia



urtebetetik bost urtera bitartean etetea edo kentzea.

- d) Kirol-erakundean karguak betetzeko gaitasunik gabe uztea edo kirol-lizentzia betiko kentzea. Azken atal horretan sartzen diren zehapenak salbuespenezko kasuetan bakarrik erabaki ahal izango dira, hau da, aparteko larritasuneko arau-hausteetan berrerortzeagatik.

45. artikulua – Arau-hauste astunen zehapenak

Erregelamendu honen 42. artikuluan tipifikatutako arau-hauste astunak egiteagatik, zehapen hauek ezarriko dira:

- a) Kargu-hartze publikoa.
- b) 601 eta 6.000 euro arteko isuna.
- c) Probak edo lehiaketak egiten diren tokietara sartzeko debekua, hilabete eta urtebete bitartean.
- d) Kirol-erakundean karguak betetzeko gaitasunik gabe uztea edo federazio-lizentzia hilabetetik urtebetera bitartean etetea edo kentzea.

46. artikulua – Arau-hauste arinen zehapenak

Erregelamendu honen 43. artikuluan tipifikatutako arau-hauste arinak egiteagatik, zehapen hauek ezarriko dira:

- a) Ohartarazpena.
- b) 600 euro arteko isuna.
- c) Karguak betetzeko gaitasunik gabe uztea edo federazio-lizentzia hilabetetik urtebetera bitartean etetea edo kentzea.

47. artikulua – Diru-zehapenak

Egindako lanagatik ordainsariak jasotzen dituztenen kasuan baino ezin izango dira isun-zehapen pertsonalak ezarri. Kasu horretan, diru-zehapenak ezarriko dira, eta horien zenbatekoa aldatu egingo da tipifikazioaren arabera eta larritasunaren eta kasu bakoitzeko inguruabarren arabera.

Xedapen gehigarriak

Lehenengoa.- Diziplina-kode honetan jasotzen diren arauzko erreferentziak eta igortzeak gaur egun indarrean daudenei buruzkoak dira, baita etorkizunean horiek ordezkari ditzaketenei buruzkoak ere.

Bigarrena.- Epeak zenbatzeko, **Kirol Federazioaren** egoitzaren egutegi ofizialean ezarritakoa aplikatuko da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Xedapen indargabetzailea

Erregelamendu honek indargabetu egiten ditu **Kirol Federazioaren** barruan erregelamendua indarrean sartu aurretik aplikatu ziren aurreko dokumentu edo xedapen guztiak.

Azken xedapena

Erregelamendu hau indarrean jarriko da eta eragina izango du, lehenbizi, **Kirol Federazioaren** Batzar Nagusiak eta, geroago, Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoen eta Kirolen Zuzendaritzak onartu ondoren eta erregistroan inskribatu ondoren.